

## LASARTE-ORIAN

### Zinkunegi: «Soinua jotzeko indarra eta gogo soberan genituen lehen»

KOLDO GOITIA / LASARTE

**B**enito Zinkunegi herriko soinu-jole os-petsuenetakoa dugu eta oraingo ez du gertu ikusten soinua utziko duen eguna. Festa ugari alaitu ditu bere soinu txikiak eta inguruko herri eta auzo guztiak ezagunak egiten zaizkio plazetan makina bat urte musika joaz igaro ondoren. Ez zuen aukerarik izan musika ikasketarik egiteko; soinu txikia hartu eta bere kontura ikasi zuen, adorea lagun bakarria zuela.

**EGUNKARIA.**— Noiz hasi zinen soinua jotzen?

**BENITO ZINKUNEGI.**— Zortzi urte ez nituen izango etxean soinua jotzen hasi nintzenean. Nere aita zena eta osaba festarik festa ibiltzen ziren herrietatik eta etxean bi soinu txiki aurrean nituelarik hura jotzeko gogo gero eta handiagoa egiten zitzaidan. Aitak ere asko lagundu zidan. Horrela gaur arte, eta dagoeneko baditut hirurogeitabi urte.

**EGUNKARIA.**— Gogoratzen al duzu soinua noiz jo zenuen lehenengo aldiz?

**ZINKUNEGI.**— Lehenengo aldia ez dut inoiz ahaztuko. Hamahiru urte nituen gazte koadrila batek soinu txikia jotzeko eskatu zidanean. Ni gustora joango nintzen baina gurasoek esango zutenaren beldur. Gazteek nire

**Nik Michelinen lan egiten nuen eta lanetik irten, afaldu eta bizpahiru ordu soinua jotzen pasa gabe ez nintzen ohera joaten ●**

osabarekin hitzegingo zutela agindu zidaten eta hala lortu nuen joateko baimena. Orduak aurrera ez nuen gehiago parte eman beharrik izan. Gustatu egin zitzaizkien nonbait aurreneko aldikoa.

**EGUNKARIA.**— Gaurko eta orduko soinu-joleen artean zer nolako aldea ikusten duzu?

**ZINKUNEGI.**— Gaur hobe jotzen da baina garai batean gogo eta indarra soberan genituen eta jo eta ke iharduten ginen. Nik esate baterako Michelinen lan egiten nuen eta lanetik irten, afaldu eta bizpahiru ordu soinua jotzen pasa gabe ez nintzen ohera joaten. Musika behar den moduan ikasteko aukerarik ez izatea zen nire pena bakarra.

**EGUNKARIA.**— Zer motako piezak jotzen dituzu gustorago, trikitixak, fandangoak...?

**ZINKUNEGI.**— Nik denetik jotzen dut: trikitixa, arinarina, fandangoa... Badut nik egindako pieza ere. Edonon jotzen ditut, erromeriatan nahiz jubilatuekin egiten ditugun irteeretan. Igeldoko plazan makina bat pieza jo izan ditut; jaiero zortzi urtez han ibili nintzen nire soinu txikiarekin. Elora soinu-jolea ere nirekin ibilizen. Nik ezbeharren bat izanda ere nire ordez jotzeko prest izaten nuen beti.



Benito Zinkunegi soinu-jolea.

CARLOS VILLAGRAN


### Akordeoi kontzertua parrokian

■ Gaur, arratsaldeko zortzietan, San Pedro parrokian Zero Septe akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du hara azaltzen diren atseginerako. Orkestra honek urtero eskaintzen du akordeoi kontzertua eta aurtengoan ere herritar guztiarentzat ekitaldia antolatuko dute.

■ Kontzertuan Guridiren 'Melodias vascas', Albiniaren 'Adaggio', Loeweren 'My fair lady', Vivaldiaren 'Concierto en La menor' eta Kadchaturianen 'La danza

del sable' konposizioak joko dituzte Zero Septe partaideek.

■ Orkestra hogeitabat lagunez osatua dago eta zuzendaria Elias Goikuria da. Duela gutxi zuzendari aldatuta izan arren, Zero Septe akordeoi-joleek berriro ere ilusioz hartu dute beren gain kontzertuaren prestaketa. Lasarte-Oriako ekitaldian ihardun ondoren Donostiako Udaletxean eskainiko dute hurrengo kontzertua uztailearen 6an.



### Bertsotzaileak udazkenean izango dira

Bertsotzaileak dagoeneko nahiko kezkatuta egongo dira, aurten ez bait dute aukerarik bertsoariak entzuteko. Arazoa sortu zen Santa Barbara elkarte lokalik gabe geratu zenean. Elkarte honek antolatzen zituen bertsoari ekitaldiak eta lokalik ez izatean elkarteak ezin izan zuen behar bezala funtzionatu. Arazoa konpontu nahian bertsoari eskola arduratu zen ekitaldiaren antolatzaile, baina festa aldaketa guzti hauek egin baino lehen iritsi ziren eta ezin izan zizuten herri programan sartu. Dena dela, bertsozaleek izango dute udazken aldera orain ukatu zaien bertso jaialdia.

### Astelehena Lasarten

- ☞ 1.30etan txokolatada berbenaren atsedendaldian.
- ☞ 7.00etan sokamuturra Gel-toki kalean.
- ☞ 11.00etan pista libre haur parkea Isla plazan.
- ☞ 18.00etan xexenak hilerriko zelaian.
- ☞ 23.00etan Caballerren su festak.
- ☞ 24.00etan Basakabi taldea Okendo plazan.
- ☞ 24.15etan mascleta valentziarra Eskola Berrietan.

**TXARTEL TxOKO.**  
JATETXEA TEL.: 370192 LASARTE-ORIA

**SASTRERIA NOGUES LASARTE**  
Tel. 361403

- ❖ ALKANDORAK
- ❖ ATERKIAK
- ❖ KONFEZIOAK
- ❖ PONDUZKO GENEROAK

Nagusia Bis, 16 Behea LASARTE

**Jose Mari JATETXEA**  
Festa zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei eta txanpaina edatera etorri daitezela

**Egunkaria**  
Festa on irakurleoi!!

**BERASATEGI Kafe denda**  
Edateko kaferik onena  
TXURRUKA 1, LASARTE ORIA Tfnoa.: 361316

**ANA APAINDEGIA**  
Cedro plaza, 2 behea Bidebieta - 1 Tfnoa.: 392051 DONOSTIA  
K. Nagusia, 27 Tfnoa.: 371891 LASARTE

**AIRE EGOKITUA DOHAN**

Hilabete honetan, Citroën AX 14 TRS eta Citroën AX GT Satisfaction ereduak, haien serieko ekipamendu puntakoan aire egokitua dohan eskeintzen dizute. Esain bezain argi. Esan bezain erraz.

EREDUA	CILINDRADA ZKetan	POTENTZIA ZPlan	AIRE EGOKITUA
AX 14 TRS Satisfaction	1.360	70	BAI
AX GT SATISFACTION	1.360	85	BAI
BX 16 TGS PRESTIGE			BAI

**EUSKAL-AUTO S.A.**  
Citroën Banatzaile Ofiziala LARUNBATA ARRATSALDEZ IREKITA  
Lasarte: Errepide Nagusia, 2/g Tfnoa.: 37 00 99

**HOTEL TXARTEL**  
HOTELA eta KAFETEGIAK

**LASARTE-ORIAKO herritar guztiei festa ezin hobeak opa dizkie**

Tefnoak.: 36 23 40 / 41 42

**BOLATOKI EDARITEGIA**

- ☆ pintxoak
- ☆ solomoa
- ☆ tortilak etabar..

Nagusia Bis, 18 LASARTE